

# BERRIGARA

75. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1992, irailak 11

**SAN  
MARTIN  
JAIK  
BERTAN  
DAUZKAZGU**

**REMIGIO  
MUJKA  
BERGARARRA  
OMENDUKO DU  
GURE HERRIAN,  
IRUÑEAKO  
ORFEOLAK**

## KIROLAK

**ZIKLISMOA,  
BERGARARROK  
GEHIEN  
EGITEN DUGUN  
KIROLA**



**Vicente Ibarguren**  
**Zaldumendiko Argentinorekin berriketan**

AKADEMIA

**BASTIDA**

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Ferrerias, 44  
Arrasate  
Tel.: 79 32 16

## 1992-93 IKASTARO EGITARAUA

- GESTIO INFORMATIKA
- PROGRAMAZIO INFORMATIKA
- KONTABILITATEA ORDENAGAILUZ
- MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ
- TAKIGRAFIA
- KLASE BEREIZGARRIAK  
Baita ere, Ingenieritza Teknikoa:  
Fisika, Termodinamika.
- MERKATAL KORRESPONDENTZIA  
EUSKARAZ



**EUSKARA  
IKASTAROAK  
1.992-93**


**Bergarako  
Udal  
Euskaltegia**

**Maila guztiak:  
EUSKALDUNTZEN  
ALFABETATZEN  
EGA**

16 urtez  
gorakoentzat

*\* Bekatze-sistema eta  
diru-laguntzak izango dira*

**MAITATUZ  
MINTZATU**



**ERRITMOAK**

Egunero 2 ordu  
Egunero 3 ordu  
Egunero 5 ordu

**IRAUPENA**

Iraila-Ekaina  
Iraila-Ekaina  
Iraila-Otsaila

**PREZIOAK**

16.000 pzta  
22.500 pzta  
22.500 pzta

**MATRIKULALDIA**

Irailaren 9tik 22ra arte

**BULEGO ORDUTEGIA**

Goizez: 8.30 - 12.30  
Arratsaldez: 14.30 - 20.00

BERGARA  
**UDAL EUSKALTEGIA**  
BIDEKURUTZETA, 27  
TEL. 76 44 53



# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jardun Elkartea  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97

**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**

Eusko Jauriaritza

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate eta Eduardo Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal eta Edurne Arenaza

Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:**

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaen

**Kolaboratzaileak:**

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel Angel Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, Mariipi Laskurain, Nerea Alzelai, Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel Elkoroberezibar, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikufña, I. Sorondo eta Leire Etxaniz.

**Argazki laborategia:**

B. Cantero, M. Leturia, J.A. Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, Jaime Garzia, Dani Santos, Patxi Retolaza, Kiñu eta Pol-Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea

**Copyright:**

BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

## PROTAGONISTAK

### GARRAIOLARIAK

Transportista Autonomoen greba denon ahotan izan da aste honetan. Jakina denez, joan zen astean ekin zioten huelgari estatu osoko kamioilari autonomoek, Garraio Ministeritzak beren lan eskaerei erantzun egokia eman dezan presio egiteko.

Greba estatu osorako konbokatu bada ere, honen eragina nabarriagoa izan da Euskal Autonomi Elkartearen. Bergaran ere gehienek erantzun diote huelga deiari. Izan ere, Bergaran dauden 85 garraiolari autonomoetatik, 9 bakarrik ari dira lanean.



Transportistek greban luze jarraitzeko asmoa duten bitartean, herriko dendariak grebaren eragina zuzenki jasaten ari dira, komertziozako apalak oraindik bete xamar agertzen diren arren.

**15 egun greban eta jarraitzeko asmotan**

## ITURRI ONETIK

### Remigio Mujikaren omenezko plaka aldatuko omen du Udalak

Remigio Mujika, Iruñeako Orfeoiko sortzaile eta lehen zuzendaria izandakoari igandean egingo zaion omenaldiaren ekitaldirik garrantzitsuenetakoa, Barrenkale 42an, bere jaiotetxean jarri den plaka oroigarriaren inaugurazioa da. Iruñeako Orfoiak bidali duen plakan erdara hutsez idatzitako testutxo bat agertzen da. Udala plaka hori euskarazko beste bategatik aldatzeko asmotan dabil.

## ESAN DUTE

"Orduan taberna baten parean eskuaz jesto bat egin ezkeror, segituan gertatzen zizkizuten Coca-cola, Kas edo antzekoren batzuk. Orduan talde bakoitzetik bat edo geratu eta behar genuena hartzen genuen. Taberna batzutan bodegaraino ere sartuta gaude".

### JESUS ARANZABAL

Txirrindulari ohia  
ETBko "EUSKAL TXIRRINDULARITZAREN HISTORIA" SAIOA

"Antolatu dugun bertso jaialdi hau maiatzean antolatu zen bertso ikastaroarekin lotu behar dugu. Hor dabilzanak 15 urtera iristen direnean utzi egiten dute eta, jende hori animatzeko, hortik diruren bat aterako balitz bertso ikastaro hauetan erabiliko genuke".

**JOSE ANGEL MIKEO**  
JARDUNeko  
Lehendakaria  
LOIOLA IRRATIA

**SEIK**

*Heapaindegia*

Bidekurutzeta 10 ☎ 76 01 52

ATSEDEN ZENTRUA

# LOKARTU

KOLTZOI-DENDA

Bideberri Ibiltokia z/G - Tfnoa: 76 05 01 BERGARA







### TOMATES VERDES FRITOS

Ostirala: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30  
eta 22.15.

Astelehena: 19.30.



### OPERACION: SOLDADOS DE JUGUETE

Larunbata: 17.00,  
19.30

eta 22.30.

Astelehena: 17.00,  
19.30.

▼▼ **Kathy Bates** (*Misery*) eta **Jessica Tandy** (*Esperando a Miss Daisy*) ditugu protagonista Estatu Batuetako hegoaldean kokatutako filma honetan. Bertan, emakume ezkonduen bizitza aspergarria azaltzen da eta horri aurre egiteko beraien arteko harremanak sendotuz joango dira. **Jon Avnetek** zuzendutako, filme honek kritika oso onak izan ditu eta oskarretarako bi nominazio ere bai.

▼▼ Ikastetxe berezi batetan, familia aberatsetako semeek bakarrik ikasten dute. Gauzak horrela, talde terrorista batek ikasleen bahiketa aprobetxatu nahi izango du horren truke trafikatzailer baten askapena eskatzeko. Oraingoan berriz, ikasle horiek beste ikastetxe batzutan erakutsi duten portaera txarra justifikatu eta terroristei aurre egin beharrean aurkituko dira. **Daniel Petriek** zuzenduta, aktore gazte ezezagunak eta **Denholm Elliot** ditugu erreparto buruan.

▼ **Bergarako Errege Mitetia:** Ikerlan berrien aurkezpena ostiralean 7.30etan. Hizlari: Jose Llonbart eta Ines Pellon. **Kultur Etxean.**



▼ **Barazki, fruitu, lora eta gazta lehiaketa** larunbatean, hilak 12, goizean **San Martin Plazan**. Goizeko 7etatik 9etara jarri beharko dituzte postuak lehiaketan parte hartu nahi dutenek. 10.30etan epai-mahaia pasatuko da eta ondoren salmentari ekingo zaio. Eguerdi aldera sari banaketa plazan bertan.

▼ **Pintura Lehiaketa** jokatuko da **igande goizean** Bergarako kaleetan. **Arratsaldeko 6.30etan sari banaketa** egingo da Errotalde **Kultur Etxean.**

Lehiaketara aurkezten diren lanekin erakusketa zabalduko da Kultur Etxean.



▼ **Remigio Mujikari omenaldia** egingo zaio **igandean**, goizeko 11etan, **Udaletxean**, Iruñeako Udala eta Orfeoikideak ere bertan izango ditugularik. Ondoren, Meza Nagusia San Pedron.

## MAKAILO

Makillau **ETXEA**  
kazuelak  
gertatzen ditugu

Ibargaral 15



*Altzariak*

Gipuzkoa Etorbidea 28, Tfnoa" 79 27 70 ARRASATE



## ERAKUSKETA

### ▼ Pintura Lehiaketara

aurkeztutako margoak ikusgai izango dira Kultur Etxean irailaren 13tik 20ra bitartean.



## KONTZERTUA

### ▼ Udal Musika Bandak

kontzertua eskeiniko du igandean eguerdiko 12.30etan Novedades Aretoan. Egitaraua:

- "Raimond" obertura (A. Thomas).
- "Monastegiko lorategian" intermezzoa (A. Katelbey).
- "L'arlesienne" suitea (G. Bizet).
- "San Martin" (M. Gonzalez Bastida).

## JAIALDIA

▼ Moises Azpiauren omeneko dantza eta musika jaialdia. Larunbatean frontoian gaueko 10.30etan.



## TANBORRADA

▼ Udal Musika Bandak alaituta, nagusien tanborrada Seminariotik irtengo da asteartean gaueko 10.30etan, herriko kaleak zeharkatuko dituelarik.

▼ Haurren tanborrada Musika Eskolako Gazteen Bandak alaituta, asteazkenean arratsaldeko 7etan, herriko kaleetatn zehar.

## FARMAZIAK

- ▼ Larunbata 12: Estella.
- ▼ Igandea 13: Mozos.
- ▼ Astelehena 14: Camacho.
- ▼ Asteartea 15: Estella / Ruiz.
- ▼ Asteazkena 16: Camacho / Morales.
- ▼ Osteguna 17: Puy / Español.
- ▼ Ostirala 18: Guallar / Corcuera.

## OGIA

- ▼ Igandea 13: Mizpildi

## AUKERAN



### ▼▼ Bertso Jaialdi

ederra antolatu du jardun elkarteak ostiral gauerako. Gipuzkoako Bertso Txapelketako zortzi onenek hartuko dute parte, hau da, Peñagarikano, Egaña, Jon Sarasua, Olaso, Euskitze, Mendizabal, Sebastian Lizaso eta Muruak. Ostiralean, gaueko 10.30etan Mariaren Lagundiaren Areto Nagusian.

## ANTIA

HARATEGIA  
URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategl, Tfnoa: 76 15 09

## Mujika

### Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

## BOLINTXO

Kirola egiteko behar den guztia

Ibargaral 10,  
Tfnoa: 76 38 32



**"Egunkaria" eta Aranzadi Ikastola**

"Egunkaria"ko langile batekin batera Aranzadi Ikastolako zuzendaritza batzordearen aurrean eskale lanak egitea tokatu zait berriki. Gaia, Egunkariaren akzio bat eros zezala ikastolari proposatzea, milioi erdiko akzio bat.

Asko itxoin ondoren erantzuna ezezkoa izan da, ordez 100.000 pezetako dirulaguntza eman dutelarik. Ezezkoa arrazoitzeko erabili ziren argudioak: 1.- Ez dagoela beren ustez, ikastola baten zereginetan inongo egunkari edo enpresatan akzionista izatea. 2.- Euskararen aldeko beste zenbait erakunde ere, AEK, EHE, e.a., etorri izan dela laguntza eske, eta zerbait eman izan zaiela, baina inolaz ere ez "Egunkaria" k eskatzen duen beste, eta "Egunkaria" rekin ere berdintsu jokatua nahi zutela.

Honen aurrean zenbait gogoeta. Ez da azken batean akzionista izatea eskatzen, dirua eskatzen da. Jakin nahi duenak badaki Jaurlaritzak ez duela txakur txirik ematen eta gainera legez tokatzen zaion publizitate instituzionala ere ukatu egiten diola. "Egunkaria" k atzean duen diru guztia, ikastola, udal, enpresa, kultur erakunde, errifa, jaialdi eta ahal den bezala bildutakoa dela. Tartean ikastola mordoa dagoela.

Ez litzateke txarra ikastolaren hasierak nolakoak izan ziren oroitzea,

"Egunkaria" renaren antzekoak, esango nuke. Eta jarraipenak ere bai, gauza askotan. 1.991ean, adibidez, "Kilometroak" Bergaran izan ziren. Herri guztien laguntza desinteresatua izan zuten eta milioitxo batzuk utzi zizkion ikastolari.

Beti eske, beti eske dabilen erakunde batek ematen ere ikasi beharko luke, batipat jabetzen bada egunkari euskaldun batek duen garrantziaz. Ikastolan eskolatutakoak beste egunkaririk ez bait du, "Egunkaria" ikastolaren jarraipena bait da modu batez.

Eta ez dit balio entzuteak beste talde batzuk ere etortzen direla diru eske eta tratamendu berdina eman diozuela "Egunkaria" ri. AEK, EHE, Dantzarien Biltzarra, eta poltsikoan zuloa besterik ez duen talde asko akziodun bait da "Egunkaria" n, dirua nola edo hala bilduta, batzuetan kreditua eskatuta.

Nere aldetik bakarrik esan ez etortzeko "mesedez hau egingo dozu?" edo "bestea egingo dozu?" eskatzen, "Egunkaria" ri milioi erditxo bat luzatzen ez diozuen bitartean behintzat.

Juan Martin Elexpuru

**Bergarako Gida Komertziala**

Urte amaierarako proiektu berriak ditugu Berrigarren. Horien artean bat Bergarako Agenda. Eta agendaren barruan Bergarako dendari, profesional eta enpresa guztien helbide eta telefonoak eman nahi ditugu behar bezala sailkatuta. Telefono-listineko «Orrialde horiak» deitutakoen antzeko zerbitu izango da, baina Bergararako. Bertan agertzea merke-merke izango da: 1.000 pta. baino ez.

Gure asmoa gainera hemendik aurrera urtero ateratzea izango litzateke eta aurrerantzean kobratu gabe.

Agendak, Gida Komertziala rekin batera, beste hainbat helbide eta telefono ekarriko du: larrialdietarako telefonoak, kultur eta kirol elkartenak, elkarte gastronomikoenak, etab.

Gida honetan agertu nahi duzuen guztiok aukera izan dezazuen, laster izango duzue gure publizistaren bisita. Etzazu galdu aukera eder hau!

**Tiira ba!**



**Josu Okina**





### □ Musika Eskola

Eskolan egiten ari diren berrikuntzengatik, Musika Eskolak idazkaritza momentuz Udaletxeko Batzordean dagoela jakin arazten du. Matrikula epea irailaren 15era arte egongo da zabalik, goizeko 9 terdietatik 12.30etrara eta errekeraketa-azterketak atzeratu egingo dira hurrengo abisatu arte.


### □ Kikaundi

Kikaundi denbora libreko taldeak Osintxuko ludoteka-liburutegia eramateko pertsona bat behar du. Osintxukoa izan, 18 urte eduki, euskara menderatu eta eskola graduatua izatea eskatzen da. Izenematea irailaren 14era arte egongo da zabalik Osintxuko Krabelin ludotekan, goizeko 10.30etatik 12.30etara.

## Iruñeako Orfeoia Remigio Mujika bergararra omenduko du igandean

Bere lehen mendeurrenean, Iruñeako Orfeoia Remigio Mujika bere sortzaile eta lehen zuzendaria omenduko du igandean, irailak 13. 1.866. urtean Bergaran jaioa, Remigio Mujika 20 urterekin Iruñeara abiatu zen eta handik gutxira Iruñeako katedraleko tenore postua eskuratu zuen. 1.892. urtean Iruñeako Orfeoia sortu zuen eta bertan aritu zen 1.948. arte, handik 10 urtera, Iruñean hil zelarik. Besteak beste, Bergarako Seme Goraipatua, Iruñeako Semeordea eta Isabel Katolikoaren Ordenako Zaldun izendatu zuten eta orain berak sortutako Orfeoia errekonozimendua heldu zaio.

Gaur egun, Iruñeako Orfeoia 120 ahots ditu eta Jose Antonio Huarte dugu bere zuzendaria,



Begarako Orfeoiaekin hartueman ugari izan dituelarik.

### Kontzertua

Igandean, goizeko 11etan, Iruñeako Orfeoia eta udal-korporazioari ongi etorria emango zaie, goizeko 11.15etan Iruñeako Orfeoia emandako plaka agertara-

ziko egingo da, 11.30etan harrera Udaletxeko Pleno Aretoran eta, ondoren, 12etan, Iruñeako Orfeoia Meza Nagusia abestuko du San Pedro Parrokian, *Cantate Domino* (Haendel), *Licinio Reficeren Meza: Kyrie, Gloria, Sanctus, Agnus Dei, Ave verum* (Mozart) eta *Alleluia* (Haendel) eskeiniko dituztelarik.

## Begirale ikastaroa

JARDUN Elkarteak irailetik martxora Astialdiko Begirale ikastaroa jarriko du martxan. Ikastaroa 18 urtetik 20 urtera bitarteko gazteei zuzendua dago eta helburua astialdiarekiko lehen hurbilketa egitea eta, bide batez, astialdian euskeraren susperketa lantzea litzateke. Besteak beste, talde dinamika, pedagogia, soziologia eta beste hainbat gai landuko dira eta matrikula mugatua izango da. Interesatuak JARDUN Elkartera jo dezakete irailaren 15a baino lehen eta argibide gehiago nahi izanez gero 76 03 97 telefonora deitu.



Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.  
Tfnoa: 76 43 07

ederTu

ERA ETA PREZIO GUZTIETAKO ALTZARIAK  
Barrenkale 23 Tfnoa: 76 29 65 BERGARA



□ **Baserritarrak**

Beraiek izango dira larunbatean goizeko 9 t'erdietan Plazan hasiko den Barazki, Fruitu, Lora eta Gazta lehiaketaren benetakotako protagonistak. Sari banaketa ordubatak aldera hasiko da.

□ **Omenaldia**

Larunbatean ere, Moises Aspiazu zenaren omenez, 15 urtetik gorako Bikoteen Dantza Askatuko Txapelketa jokatu da gaueko 10 t'erdietan Mariaren Lagundian.

□ **Margo Saria**

Igandean, goizeko 9etan, hasiko da Kultur Ekintzak antolatzen duen San Martin Margo lehiaketa. Adin guztietako margolariek parte hartu dezakete, herribarrua izango delarik landu beharreko gaia. Sari banaketa 6 t'erdietan egingo da Kultur Etxean.



**Gora San Martin!**

Astebukaeran emango zaie hasiera San Martin jaien egitarauaren ekitaldi ezberdinei. Larunbatean, beste ekitaldi batzuren artean, Telleria eta Zeberriok bertso-saioa eskeiniko dute eguerdiko ordubatean San Martin Plazan; igandean, goizeko 9etan, diana izango da Kobok dultzaineroekin eta eguerdiko 12etan aintzinako abankargazko armekin Plater Tiraketa jokatu da Gorlan.

Asteartean, berriz, Txistulari Bandak eta Kobok dultzaineroek alaituta, buruhaundi, kiliki eta

erraldoien kalejira burutuko da 7etan herriko kaleetan eta ondoren haurrentzat bonba japoniarrek egongo dira. Gaueko 12etan, dantzaldia izango da Plazan Basakabi Orkestarekin. Amaitzeko, asteazkenean, Txistulari Bandarekin kalejira 9etan, sokamuturra ordu berean, Meza Nagusia 12etan, Musika Bandaren kalejira ondoren eta, arratsaldean, pailazoak 5etan Plazan, Biznietos de Celedon txarangarekin kalejira 9etan eta 10etan suzko erroberak San Martin Ikastetxean.

□ **Danborradak**

Ohiturari jarraituz, danborradak ez dira faltako aurten. Asteartean, gaueko 10 t'erdietan, Udal Musika Bandak lagunduta, Seminarioko ataritik abiatuko den danborradari emango zaio hasiera. Asteazkenean, berriz, arratsaldeko 7etan haurren danborrada Musika Eskolako Gazteen Bandaren laguntzaz.

□ **Kontzertua**

Udal Musika Bandak kontzertua eskeiniko du San Martin egunean, eguerdiko 12 t'erdietan, Plazan eguraldiak laguntzen badu edo bestela Udaletxeko Pleno Aretoan. Alfredo Glez. Chirlaqueren zuzendaritzapean, besteak beste Thomas, Katelbey, Bizet edota Miguel Glez. Bastidaren piezak eskeiniko ditu.

**YAZKI**  
**UME GAZTE**  
**Neska eta Mutil**  
 Irizar 3 Ibargaral 8  
 Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

**IZADI**  
**IZADI**  
**PILI GISASOLA**  
 Osasun eta Dietetikan  
 espezializatutako zentrua  
 Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83

**MINER Ardo onak,**  
**ardoa jakina**  
 Biltegia: Tfnoa: 76 59 89 BERGARA

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK  
**Larrañaga**  
 San Pedro, 9 - Teléfono. 761051  
 R. S. I. 209374 - 55  
**BERGARA**



# San Martin dela eta...



JOSU  
OREGI

**G**ure herrikide santuaren eguna hurbil dugula, Bergarak eta Beasainek non jaio zenari buruz izandako eztabaida luze eta sutsuaren alderdiren bati buruzko zerbait irakurtzea zenbaitentzat interesgarri gerta daitekeela uste dut.

Labur-labur esanda, bi aldetakoen sinestarazpideak honako hauetan bildu daitezke. Bi herriek bataio-agiri bana plaza-ratu izan dute; beasaindarrek, gero praile joan zela egiaztatu daitekeeneko Martin Loinaz Amunabarro batena, eta bergarrek, berriz, Martin Agirre zeritzanari omen zegokiona. Beasaindarrek beti Bergarakoa izuntzat jo izan dute, zenbait letra aldatu zaizkionaren salakuntza eginez. Egia esan, horretan zuzen ibili direla aitortu beharra dago; izan ere, mutiko batena zenaren itxurak emateko egin

zaizkion ikutuak-ikutu, harretaz begiratu gero ezein Martini, baizik eta Maria izena jarri zioten neska bati dagokiola ikusten da.

Gero, ordea, beasaindarrek ezin dute bertako Martin Loinaz eta Japonen martiri hil zen prailea bat eta bera direnaren sinistarazte-indarreko egiaztagaririk aurkeztu eta bergarrek, alderantziz, bere aldeko nahi adina erakutsi ditzakete.

Horietakoak ditugu, besteak beste, Madriletik hasi eta Mexicon, Filipinas-etan eta Japonen Martinek prailekide, misiolaritza lanetan lagun eta adiskide izan zuen frai Juan Pobre-k idatzitakoak.

Era berean, 1.596.ean Filipinas-etatik Acapulco-rako arauzko bidaiariek, ekaitzaren eraginez atalda galdu eta azkenean Japon-era jo behar izan zuen «San Felipe» itsasontziko eskribau zen

Andres Zuazolak, hitzez-hitz, «Igokundeko Martin, deituraz Agirre, 31 urtekoa, Teologilaria, Gipuzkoan, Bizkaitik hurbileko Bergaran jaioa» zela diosku martirien zerrenda ematerakoan.

Hori idatzi zuena euskalduna zela, San Martinekin idatzizko harremanak euskaraz izan zituela, eta praileei hil egin behar zituztenaren berria iritsi zitzaientzeko Gabon-gaua elkarrekin igaro zutela kontutan izanik, testigutzara hori (eta tailu bereko beste zenbait) zalantzan jartzetik ez dago.

Baina gure San Martinen bizitzan ba da beste alderdi jakingarriak; izan ere, gure frantziskotarara bezala hil zutenean edo hiltzera galdu zutenean behintzat gotzaiak jarritako eskobikupean zegoen bat eleizak gero santu izendatzea ez da ohizko gertakari arrunta. Baina hori beste baterako utziko dugu.

## Amets

Zerbitzuak haundiagotuz  
**HERGO** karabanen  
banatzailea



Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50  
**AMETS** Tailerrak  
Berezano Auzoa • OÑATI

## TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta  
eguneko bazkariak  
Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

## S. MARTIN DE AGIRRE IKASTETXEA

### OHARRA:

### 1.992-93 IKASTURTEAREN HASIERA

Datorren asteartean, irailak 15,  
klaseak hasiko dira goizeko 9etan.

## KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



# ARGAZKI ETA POSTALEN II. LEHIAKETA



## Izaskun Jimeno


eta argazkian agertzen diren bere lagunek bidali zizkiguten Marruekosetik behean ikus dezakezen argazki originala. Umorea ez zitaien falta bergarar moro hauei eta horregatik jaso dute TXURINGO JATETXEAK sari modura emandako afari ederra. SALAM MALEKUM!!

## Jabier Areitiok

Zumaiako hondartzan ateratako argazkiari eman diogu aurtengo lehiaketako argazki onenaren saria. Bere seme Gorkak jaso du, KIÑU argazki dendako Juanje eta Bibiren eskutik, KIÑUK emandako ARGAZKI MAKINA bikaina. ZORIONAK, Gorka.



**Guk espero baino postal gutxiago jaso dugunez, bi sariak argazkien artean banatzea erabaki dugu. Aldiz, erretratu pilo bat jaso ditugu eta benetan zaila egin zaigu onenak aukeratzea. Oraingoan irabazi ez duzuenok hurrengo batean izango duzue aukera. Eta bidali ez duzuenok, badakizue datorren urtean...**







tan, Santamañako elizan obretan zeudela, askotan ospatu ziren eskontzak bere ermitan eta batzuren batzuek bertan hilobiratu ere bai.

Hiru aldare eduki zitu-  
tuen: San Markos eta Santa Engraziarenak, albotakoak, eta erdian San Lorentzorena. Kanpaiak bere santuaren izena, gurutze bat eta urtea, 1.774, idatzita dauzka.

Santamañako bidean zerraldoa zeramakitenak ermitaren aurrean gelditzen ziren erresponso bat errezatzera. Beste auzo askotan bezala, San Lorentzoko jaiak eta erromeriak famatuak izan ziren. 1.920. urte inguruan Garitano tar on Pedrori bere apaiz lagun batek esan ziona dakart; behin bergarar bat Errusiara joan omen zen eta han kideko batekin topo egin. Honek abestu omen zion:

Ugasarrin otia loran  
Oreganoa Anguan  
Dantzan ikasi nahi  
duanak  
Sallabentera bihoa.

*Imanol Sorondo*

# Leitzariako San Antonio

Ermita zaharra zen. 1.468. urtean 5 libra olio utzi zizkieten argitarako testamentu batean. Bere izena aitatzen zenean,

beti Leizariako San Lorente esaten zitzaion, beste ermita askok bezala inguruko abizena harturik.

XVI. gizaldian bazeukan Santutxu bat ere, gorragotik zegoen errepede nagusiaren ondoan, Mou alderago. Eta garai horre-

## EXLIKUN


**BEREZITASUNAK**

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62  
BERGARA

## PRiMi

- Mariskoak, arrain fresko eta izotuak .
- Etxerainoko zerbitzua

Merkatuan ☎ 76 15 90  
San Antonion ☎ 76 21 08  
Matxiategin ☎ 76 21 91



**POL - POL TABERNA**

Tfnoa: 76 48 51

**DEPORTIVO TABERNA**

Tfnoa: 76 01 51



Duela 66 urte Zaldumendi baserrian jaio eta bertan bizi izan zen 24 urte bete zituen arte. Orduan, 1.951an, Argentinan bizi zen osaba baten bitartez bertara joan zen, La Plata hirira eta han geratu zen. Gaur egun enpresa txiki baten jabe da eta baita La Platako Euskal Etxeko presidentea ere. Bere jaiotetxean hiru hilabete igaro eta gero, ale hau atera orduko La Platan izango da berriro.



Vlicente Ibarra, Bergarako argentinarra:

## "Ez naiz inoiz damutu Argentinara joanagatik"

**- Nolatan joan zinen Argentinara, zerk bulztatuta?**

Urte koxkorrak ziren hemen gerra zibil osteko garai hartan, ez zegoen etorkizunik. Han ondo zebiltzan gauzak, gaur baino urte hobek ziren Argentinan. La Platan bizi zen osaba batekin entenditzen nintzen kartaz eta bertara joan nintzan.

**- Behin La Platan nola antolatu zenuen zure bizimodua?**

Joan aurretik Plazentzian ibili nintzen lanean urte askotan eta gero Maic-en ere bai, eta banuen ajustadore ofizioa ikasita. Hara iritsi nintzenean metaleko tailer batetan hasi nintzen lanean, lehenengo bost urte patrioiaren azpian eta gero nire kontura hasi nintzen sozio batekin... eta gaur arte. Orain 5 mutil dauzkagu enplegatuta.

**- Eta han ezkondu zinen?**

Bai, lehenengo soltero egon nintzen urte batzutan eta gero badira 30 urte ezkondu ginela. Marutxa Argentinan jaioa da, baina jatorri euskaldunekoa da. Seme alabarik ez daukagu, baina koinatuak, loibak, eta loiba txikiak ere baditugu, eta oso ondo bizi gara.

**- Nolatan jarri zinen barremanetan Euskal Etxearekin?**

Nola ez nintzen ba

joango? Euskal zentrua gure kontsueloa izan da.

**- Nola daude antolatuen Euskal Zentruak?**

La Platako Euskal Etxeak 400 bat asoziatu ditu. Gehiago ere izan ditu, baina apur bat bajatu da. Guztiek ordaintzen dute hilero kuota bat. Gizonak 5 dolarren baliokidea, emakumeek 4 dolar eta gaztetxoek dolar bat. Hor konserje bat dago eta berak enplegatuen dauka: sukaldaria, zerbitzariak, eta beste langile batzuek. Konserjeak aloikaria ordaintzen digu hilero eta honekin mantentzen gara, baina beti eskax.

**- Zer ekintza mota antolatzen dituzue Euskal Etxeetan?**

Ekintza asko antolatzen ditugu. Orain Eusko

**A  
R  
R  
A  
N  
O**

**Taberna**  
Kruz Gallastegi BERGARA

**Z** u m e l a g a  
**JATETXEA**  
San Antonio 5 BERGARA  
Tfnoa: 76 20 21

**Tximak**  
**Ileapaindegia**  
Fraikoziuri 3, Tfnoa: 76 56 69



Jaurlaritzak bialdutako bi neska gazte daude Euskera irakasten. Guk hiru ikasle talde dauzkagu. Txistua jotzen ere 40tik gora daude ikasten. Buenos Airesen elkartzen dira larunbatero, han Lekarozko bat dago irakasten diena. Dantza egiten ere guztiei erakusten zaie, eta dantza txapelketak antolatzen ditugu, baita pelotari partiduak. Pelotan «paleta argentina» da afizio handiena sortzen duena. Mus txapelketak ere egiten ditugu 9 edo 10 nazioen artean: Chile, Mexico, California, Ipar eta Hego Euskal Herria, etabar. Urte batean Euskal Herria eta hurrengoan Ameriketara jokatzen da finala. Aurten Argentinan, Tandil herria, jokatuko da urrian, eta azaroan, Tandilen bertan, izango da urtero egiten dugun Euskal Jai Nazionala ere. Euskal Etxe guztietatik etorritakoak biltzen gara egun horretan eta Euskal Herriatik ere etortzen dira dantzariak, soinu-joleak, txistulariak, hegazkin bat etortzen da urtero.

**- Nola bizi zarete Argentinako euskaldunak?**

Argentina emigrante-ek egindako nazioa da, eta hainbat lekutatik, italiarrak, judutarrak, arabek eta ingelesak ere askotan ez dira onenak

joan. Akaso poliziaren-gandik ihesi. Euskaldunak, ez dut guztiak esango, baina bai gehienak lanera joan ginen. Lan egin duenak han dirua egin du, seme alabei estudioak eman. Gauregun euskaldunak begi onez ikusiak gaude eta negoziotan, etxeak alokatzeko, erreztasunak dauzkagu jatorri euskaldunekoak izategatik.

**- Oso maiz etortzen al zarete Bergarara?**

Argentinan nagoenetik sei aldiz etorri naiz, gehienetan emaztearekin, eta beste sei aldiz etortzeko esperantzaz. Azkeneko aldiz duela bost urte t'erdi etorri nintzen, orain 66 urterekin bizkorrago ibili behar, urte pare batean behin edo.

**- Enkargu asko eramango duzu Argentinara itzultzerakoan ban bizi diren euskaldun guztientzat.**

Bai, iritsi eta segituan Euskal Etxera joan eta han kontatu behar lagunei nola dauden gauzak hemen, eta nola ibili garen. Euskaldun gutxi daude han hemen jaiotakoak. Gehienak bigarren edo hirugarren jeneraziokoak dira baina izugarritzko espiritu euskalduna dute. Askok sekula ez dira etorri eta gustatzen zaie hemengo kontuak entzutea.

Ni pixkat korresponsal modura ibiltzen naiz.

**- Nola dago Argentinako egoera politiko eta ekonomikoa?**

Gaizki daude gauzak orain, baina okerrako zeuden duela hiru edo lau urte. Dirua jarri da dolar bat, peso bat. Lehen dena milloiak ziren eta guber-nua sartu zenean lau zero kendu zituen. Azkenaldian ondo mantentzen da eta hori ona da. Gu horrela ondo gabiltza. Gauzak garestitu egiten dira baina ez lehengo modu-

an. Lehen egun batean 10 balio zuenak hurrengoan 20. Soldatak, berriz, bai-juak dira, baina lana behintzat badago.

**- Lana utzi eta jubilatzen zarenean itzultzeko al zara Euskal herrira bizitzera?**

Ez, ez, ni hara eginda nago, neure interesak eta neure gauza guztiak han daude, eta horiek ere ondo zaindu behar izaten dira. Ni ohitu naiz. Oso ondo bizi izan naiz beti, ez naiz inoiz damutu Argentinara joanagatik.



Vicente Iburguren eta bere emaztea Marutxa, Zaldumendi baserri aurrean.



- ✓ MAILA GUZTIAK: Alfabetatze eta EGA.
- ✓ ORDUTEGI GUZTIAK.
- ✓ MATRIKULA EPEA: Irailaren 8tik 25era arte.

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAZIOA:

**ERDU AEK EUSKALTEGIA**

Garibal etorbidea 14 zb. 3 (Sindikatu etxea)  
ARRASATE ☎ 77 03 69



## Zubiberri Sagardotegia

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton, Tfnoa: 76 41 06



## ETXE AUNDI

Negoio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

# FS

oto istema

## ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta bodeako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K

I  
Z  
A  
R  
H  
O  
T  
Z

I  
Z  
O  
Z  
K  
I  
A  
K


Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

## Maastrichteko kontuan, erreferendumaren alde al zaude?



Mari Karmen Arruabarrena  
40 urte, etxekoandrea

Bai, guztien eritzia jakitea beharrezkoa delako. Horrez gain, oso informazio gutxi jaso dugu.



Jose Luis Martinez  
60 urte, langabetua

Lehenbizi esplikatu dezatela zertan datzan kontu hori. Gero gerokoak.



Jon Landa  
23 urte, langilea

Nere ustez ez, azken batean Europaren batasuna kolokan jartzen delako horrekin.



Nerea Larrañaga  
24 urte, langilea

Nik uste dut baietz eta tratatuari buruzko informazio gehiago emango balute hobe.



## IRAKASLE ESKOLA Eskoriatza Gipuzkoa

Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:  
1.992-93 ikasturterako matrikulazio-epea zabalik dagoela.

### ESPEZIALITATEAK:

- Haur -Eskola
- Euskal Filologia
- Ingles Filologia

INFORMAZIOA: Irakasle Eskola. ☎ (943) 79 04 40  
ORDUTEGIA: 9 - 13





### *Kristauak erakarri nabian*

Garbi dago gero eta jende gutxiago hurbiltzen dela elizara. Eta badirudi krisi hau mundu guztikoa dela. Fededunak erakarri nahirik, Italian konfesaleku eroso eta modernoak jartzea erabaki dute, hainbat mendetan kristau onen pekatuak entzun dituzten zaharrak aldatuz. Genuflex enpresak banatzen dituen konfesalekuok, beste berrikuntza batzuren artean aire egokitua eta berogailua dute.

Konfesaleku berri hauen abantailak asko dira. Kristauak ohiturari jarraituz belauniko jarri daitezke, edo bestela apaiza eta aitorlearen arteko burdinezko sarea kenduz konfesaleku aulki eta mahai dotoreak dituen egongela txiki bihurtu ere bai. Insonorizatu, argi intentsitatea eta temperatura ere aukeratu daitezke. Badirudi publikitatea elizara ere iritsi dela, berrikuntzen berri ematen duen liburuxka bat ere argitaratu bait dute. Bertan aitortza eroso, sakon eta sekretuak eskeintzen dira.

Nicola Bartolomasi Turingo San Giornoko parrokoak abutzuan jarri zuen konfesaleku berria eta emaitza onak eman dizkiola dio. Orain kristauak ez dute aitzakirik, ez udan ez neguan. Bergaran ere, agian konfesalekuak aldatzea komenigarria litzateke, zeinek dakil, uda hotz eta neguan bero, zinera joan beharrean...; Nik behintzat ez ditut probatuko.

**Jon Altuna**



### *San Martinak*

Amaitu dira, amaitu uda beroko oporraldiak. Irailaren lehenengo eguzkiekin, oraindik eguneroko lan-martxara ohitu barik gaudela, San Martin festa datorkigu. Eta ez, alajainkoa, Euskal Herri osoan ospatzen den udazkeneko San Martin, geurea, bereziki propioa daukaguna baino.

Hilabeteko eternaldia bukaturik, gazte aroko oroipe-nak, danba-danba, bururutzen zaizkit. Jaia eta alegantzia parean daukagu! eta, aldi berean, kurtsu berriko arazoetara aurre egin beharra.

Gazte aroko arazoak ez ditu denborak konpontzen, areagotu eta multiplikatzen baino, eta lehen ikasketa arazoak kezkatzen ba gintuzten, denboraren poderioz, lan arazoak bihurtu dira. Lehen maisu-maistren kontuak bageneuzkan loa patxadan egin ez ahal izateko, orain politika, enpresa edo familiar arazoak daukagu. San Martinak, beraz, bergaratar guztiontzat azukre eta ozpinaren gustu nahasia daukate, egun gutxiko jaia eta parranda amaituta betiko dinamika aspergarri eta neke-tsura itzuli beharrak berarekin bat eginik daramana, alegia. Ospa dezagun, bada, Martin de Agirre bergaratar ospetsuaren eguna, santua ez bazen ere -eta bada hortik zehar honetaz bere zalantzak agertu duen bat baino gehiago- bergararra zanik argi eta garbi baitago. Gero-koak, gerorako utzi.

**Martin Garitano**



**LIZAR**  
**Altzariak**

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53

**ERREKI**  
*Erretegia*

**Lehengo jabeak**

## **BERGARA PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA**

(Psikologia Gabinetea)

• **Zerbitzuak:** Aspaldiko urteetan:

- Konsulta, diagnostikoa eta tratamendua (haur, gaztetxo eta helduentzat)
- Eskola atzerapenatarako laguntzak, ikastetxeentzako zerbitzuak.

• **Tratamendua:** Psikoterapia (urduritasuna, depresioak, stress-a, harreman-arazoak, enuresia (gauetan txiza egitea), psikomotrizitatea, logopedia (hizkuntzazko zailtasunak, ahotsezkoa, afasia, artikulazio arazoak, toteltasuna,...)

**Herri-Lagunak (Aranzadi Ikastolako patioetik sarrera)**  
Tfnoa: 76 14 80. KoordInatzalea: Jose Luis Irazabal





# Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



**ILEAPAINDEGI MISTOA ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea  
Tfnoa: 76 29 70  
BERGARA

# ANDUZU

**ERAIKUNTZA  
MATERIALEN  
BILTEGIA**

- Azulejo erakusketa
- Onduline • P.V.C.
- Blokeak • Pinturak
- Adreiluzko boteliatokia
- Mailazua • Garraioak egiten ditugu

Telleriko Lana Pol/Ind. San Juan  
C-1-B Pab. Tfnoa: 76 01 41  
Faxa: 76 00 58 BERGARA


# Hagin klinika

*Idoia Iriarte Irueta*

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

## □ Eskertza

Joan den ostiralean Bergarako Udalak eta Aritzeta abesbatzak Gipuzkoako Abesbatzen Federazioaren eskertza jaso zuten gure herrian ospatu zen **Toparak** eguna antolatzeagatik. **Jose Maria Aierdi** Federazioko presidenteak aurkezpena egin eta antolaketa eta herri osoaren kolaborazioa azpimarratu zituen. Ondoren, **Agustin Badiola** Aritzetao presidentek zein **Victoriano Gallastegik** plaka bana jaso zuten **Pedro Illarramendi** Federazioko presidente ohiaren eskutik. Horrelako arrakasta eta harrera izanda, agian laister animatuko zaizkigu berriz ere musika koralarari dedikatutako honelako egun bat antolatzerara...



# IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.  
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA





❑ **Rataplan!!**

Jadanik bi aste daramatzate tanborradan parte hartuko duten haur eta nagusiek Seminarioan entsaiuak burutzen. Guztira, haur tanborradan 4 urtetik 10 urtera bitarteko 90 neska-mutil aterako dira (asteazkenean, 7etan) eta nagusien tanborradan bost talde izango dira burrundada sortzeari ekingo diotenak: **Zuloa** Elkartekoa, mixto bat (elkarte ezberdinetako jendez osaturik), **Xamatx** dantzataldekoa, **Arrano** eta **Aritzetakoa**. Azken honetan ere danbor ugari (160 bat) eta denak ostegun gauean, 10.30etan, beren musika herriko txoko guztietara eramateko asmoz. Hori lurrikara datorkiguna!!

❑ **Eskolara**


Oporrak amaitu eta hasi da dagoeneko herria berriz ere eguneroko martxa hartzen. Horren lekuko klaseen hasiera dugu. **Aranzadi Ikastolan** 600 bat ikaslek hasiera eman zioten asteartean 92-93 ikasturteari eta datozen egunotan beste ikastetxetan ere gauza bera gertatutako da, ehundaka ikasle eskolara itzuliz;



**Mariaren Lagundian** 14an (O.H.O.ko 1go eta 2. mailak eta R.E.M. eta profesionalekoak ezik), **San Martin Ikastetxean** 15ean, irailaren 24ean **Institutoan** eta **Lanbide Heziketa Eskolakoak** 25ean. Animo mutilak, bistan dira hurrengo oporrak eta!!

**Zertan dibardute ba?**

JON ALTUNA "OXAN"



Leioako Fakultatean lizentziaturiko 25 urteko kazetari bergararra **Egin** egunkariak Hernanin duen erredakzioan lanean hasi da hainbat urtetan egunkari berean Bergarako kronikaren ardura eramanez ondoren.

RAMON MARIA LOITI



Pol-Pol Mendizale Taldeko 38 urteko angiozartar honek Akonkaguako (6.970) tontorra zapaldu zuen beste hiru lagunekin batera pasaden abuztuan. Han negua izanik zero azpitik 30 gradutara ere ibili ziren.



**Ziripot**

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41



**LASA JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29



## Umore giroan

### 500 pezetako billete faltsua

Gabe baten jua da berandu etxera gure "Kaporala". Andria, oetik asi jako asarre eitzen:

- Bai, diru guztiak gastauta zatoz etxera. Lotsagabia!

- Ez andra, or lagatzen detsut mesilla gañian 500 pezetako billetia.

Baretu zan apurtxo bat andria. Ez denbora askorako baiña. Senarran fetxorixak ikusitxa, laster asarratu zan berriro be:

- Zu, Jazinto, faltsua zara, oso faltsua!

Jazintok orduan:

- Faltsua bai or mesilla gañian dauan billetia!

Olaxe zan: Txokolate fiñetan agertzen diran kromuetako billetia laga zetsan eta.

\* \* \*

### Fabrikan pagau biok

Domeka goiz baten, an zeguan "Punteret" Bar Tupi-ko barra ertzian beste lagun batzukin. Konturatu barik, sartu zan beste ertzetik bere tallarreko ugazaba. "Rondia" pagatzerakuan, esate detsa "Punteret"i tabernarixak:

- Pagauta daok.

- Nork pagau jok ba.

- Ire tallarreko ugezbak.

Orduan, "Punteret" k, esaten detsa beste puntan zeguan ugezabari:

- I, emen eztaukak zertan pagaurik. Ik, tallarran pagau biok eta ondo gaiñera.

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Zubialde

Uda partean etorri zaigu berri tristea: Araban, Gorbearen oinetan dagoen Zubialde kobazuloko ustezko margo paleolitarrak ez dira orain hamabi bat mila urte eginikoak, duela urte gutxi egindakoak baino. Hau da Euskal Herriaren Historiaurreko gaietan hain ezagunak diren adituek (J. Altuna, J.M. Apellaniz eta I. Barandiaran) urte luze batean eginiko ikerketaren ondorioa.

Ustezko aurkikuntzaren berriak (1991eko martxoan) harridura zenbaitengan, sinesgaiztasuna gutxi batzuegan, baina gehienengan poza sortu zuen. Orain, ordea, tristura izan da gehien barrenetaz jabetu dena. Eta tristuraz gain, iruzur edo engainuaren ideia izan dugu komentario gehienetan azalduakoa. Azken hau da, behintzat, zenbait egunkari eta aldizkaritako eritziak irakurri eta pertsona desberdinekin hitzegin ondoren atera zitekeen ondorioa.

Arkeologia mundutik urrun dagoenari -eta hemen sar daiteke gehiengo, kazetari eta politikoko gehienak barne- zaila suertatuko zaio gertatutakoa

ulertzea. Eta oraindik zailago kazetari «listillo» batzuen interpretazioak irakurri baditu. Horietariko baten batek ikerketan parte hartu zuten adituen gaitasun zientifikoa ere zalan-tzan ipintzen zuen!

Nigan, abuztuko 12an plazaratuko notiziak, tristura sortu zuen, hasiera batean. Tristura gauza askogatik. Batez ere, ia errealitatea ematen zuen ilusio bat, bapatean, zapuztu delako. Ia errealitatea idatzi dut: bane-kien ustezko aurkikuntza sakonki ikertzen ari zela; bane-kien eta badakit Arkeologia hari mehetatik zintzilik dagoen zientzia delako horrelakorik espero zitekeela; gainera, bane-kien, Zubialdeko aurkikuntza plazaratu zenean aditu beraiek argi eta garbi laga zutela hasierako ikerketa ez zela behinbetikoa behin behinekoa baizik. Hala ere, tristura izan zen ikerketen berri jakiterakoan sentitu nuena. Eta ondoren, zergatik ez, poza: azken finean egia izan bait da beste guztien gainetik gailendu dena.

Xabier Larrañaga

## ARREGI

### Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93  
Labegaraita Auzoa

## AGOITZ Tapizdenda

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58  
BERGARA

# INGELESA FRANTSESIA



## UNEDen

92 - 93 ikasturtea

Klaseak: goizez eta arratsaldez


Matrikula: Irailaren 10etik aurrera

Informazioa: UNEDen (3. pisuan), 4etatik  
8etara. ☎ 76 13 42.

Kurtso hasiera: urriak 1







Barrenkale, 3. BERGARA. telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta  
karta bereziak ditugu  
Betiko eta oraingo sukaldaritza**

**ARGAZKI**


**Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66**

## **GALDE DEBALDE**

### **Ortzi San Andres**

Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun zuzena hau zen:  
1977 urtean pasa zen azken aldiz Bergaratik Le Tour  
famatua. Gasteiz - Seignosse Le Penon etapa izan zen hura.  
**ORTZI SAN ANDRES** izan da aste honetako irabazlea.  
**ZORIONAK !!**

Eta besteok animatu, eta erantzuna eman aste honetako  
galderari!



**Urcelay**  
**HARATEGIA**

**GURE BASERRIAN  
HAZITAKO TXAHALAK**

**Etxean egindako txorizo,  
saltxitxa, odoloste, e.a.k**



Ibargarai 16, Tfnoa: 76 00 45 / 76 37 77

**Zubikua**

**JANTZIDENDA**

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16





Ortzi San Andresek jaso du aste honetan URCELAYk emandako saria.



Hurrengo Galde Debaldeko saria ZUBIKUA JANTZIDENDAK emango du.

# Galde Debalde

## Aste honetako galdera:

Udako oporrak pasa dira, baina jai girotik irten barik gabiltza inguru honetan. Osintxuko jaiak pasa ziran eta laster datoz San Martinak Bergaran eta San Migelak Angiozarren . Angiozarko elizataraietan bi pertsonaia daude bakoitza musika tresna bana jotzen jaiak alaitu nahian edo.

Zein bi musika tresna dihardute jotzen pertsonaia horiek?

A dashed-line rectangular box containing a pencil icon on the left and a pair of scissors icon on the right. Below the dashed line are three horizontal lines for writing the answer.

**OHARRA:** Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



### □ Liga hasi

Bergara Kirol Elkarteko lehen futbol taldeak Lazkaon jokatu du larunbatean ligako lehen partidua bertako taldearen aurka. Partidua arratsaldeko 5 t'erdietan hasiko da. Gogoratu Bergarak Jesus Izagirre entrenatzailea fitxatu duela aurreko prefentetik 3. mailara igotzeko asmoz.

### □ Futbito

42 taldek hartuko dute parte Bergara Kirol Elkarteak urtero antolatzen duen futbito txapelketan. Ohizkoa denez, partiduak astebukaeretan kiroldegian jokatu dira irailearen 19tik aurrera eta nobedade gisa aurreko bi kategoriatan egongo dira.

## UNEDek Bergarako kirolaren azterketa soziologikoa burutu du

Bergarako UNEDek amaitu du jadanik Udal Kirol Zerbitzuaren enkar-guz gure herriko kirol egoerari buruz egin duen azterketa soziologikoa. Azterketa hau urtariletik ekainera bitartean burutu dute UNEDekoek eta guztira 1.000 inkesta egin behar izan dituzte.

### Desinformaturik

Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko arduradunaren esanetan, "konturatu gara jendea nabiko desinformaturik dagoela kirola asuntotan eta guztiengana heltzeko lan mordoan egin beharko dugu, bakarrik % 55,4ak ezagutzen baitu Kirol Zerbitzua. Zaletasuna badago baina instalazioengatik galdetzean jendea ez da oso pozik agertzen eta gure erronka



nagusia berauek berriztea izango da".

UNEDek egindako kuestionarioan herritarren kirol zaletasunari buruzko era guztietako datuak somatzen dira. Horrela, txirrindularitza da jendeak gehien egiten duen kirola (% 17,8), % 45,3ak inoiz ez ditu Bergaran antolatzen diren kirol ekitaldiak ikusten,

jendeak lagunartean igarotzen du aisialdiko denbora gehiena (% 43a), % 26,4a klub edota elkarteren batetako kidea dugu, instalazioak baino jendeak beste espazio batzuetan erabiltzen ditu kirola egiteko eta, azkenik, kirolaririk onena zein den galdetzean, jendeak Zezeaga pelotari uberarra aipatzen du.

## Kirola jaietan

Larunbatean, Zaleak Atletiko Taldeak eta Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako, herri krosa jokatu da arratsaldeko 6etan. 14 urterainokoek 1.200 m. bete beharko dituzte, 3 Km. 14 urtetik 18 urterarteok eta 9 Km. nagusiek. Sari bikainak izango dira kategoriatan eta izen-ematea dohain izango da, karrera hasi baino orduerdi lehenago itxiko delarik. Igandean, berriz, afizionatuen 2. mailakoentzat XXVII. San Martin Txirrindulari Saria jokatu da goizeko 9etatik aurrera. Txirrindulariek 110 Km.ko ibilbidea bete beharko dute.



SURF  
Kirol Moda

AISSOR

Quick Silver, Rip Curl, Town Country, LIBERTO,  
O' NILL, TACHEE

Bidekurutzeta 7 ☎ 76 04 10 BERGARA

Kailash

Zentro Esoterikoa

Parasikologi Zientzien Instituto  
Hispano Amerikarrean diplomaturako  
profesionalak.

• Tarot-a • Hipnosia • Erresonantzia  
Eskaerak: Tfnoa: 76 01 31 (Iris)





### 1.961eko San Martinak

**B**urrumbada gogorrean ibili dira danborrak San Martin jaietako prestakizunetan. Baina orain ez da garai bateko karroza dotorerik izaten.

Honako argazki hauetan 1.961eko tanborradako karroza agertzen da. Neskak irten ziren lehenengo urtea izan omen zen eta Errotaldeko Palazioko diligentzia erabili omen zuten karrozatarako. Umore-Onak antolatzen zuten karroza eta Binixio Berasategi izaten zuten disenatzaile. Hamalau urtetan atera ziren.

Argazki bietan agertzen diren neskak ezkerretik eskumara: Begoña Igarza, Maria Elena Etxeberria, Begoña Garai, Mari Karmen Garitano, Maria Antonia Ugarte eta Arantza Gallastegi.



*Estepan Plazaola*

**ABDON JUARISTIK**  
pintura ikastaroak

☎ 76 47 98 (12etatik 14etara)

Hasiera: Irailak 30

**DENA 100**  
pzta.tan

Ireki berria  
SIMON ARRIETA 3an



**ETXEBIZITZA**

**Pisua salgai** Bidekuru-tzetan. (5.000.000) ☎ 76 09 36.

**Santa Marina** inguruko garaje bat **Zapelaltz** aldeko batekin trukatu nuke. ☎ 76 58 61.

**Bergaran** herriaren erdialdean **Ileapaldegia** alokatzen da. ☎ 76 16 17.

**Pisua salgai** Koldo Eleizalden. ☎ 76 58 23.

**Andereño** batek pisua hartuko luke alokairuan. ☎ 65 00 25.

**Artekalen** pisua salgai ☎ 76 55 63. Gaez.

**Garajea salgai** Espalioan. ☎ 76 01 95.

**Pisua** hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

**Deuston** pisua betetzeko jendea nahi dugu. ☎ 76 34 92, goizez.

**Espalioan** garajea salgai ☎ 76 23 27.

**Pisua salgai:** bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. ☎ 76 49 71.

**Zaragozan** pisu bat osatzeko neska euskaldun bat behar dugu. ☎ 75 19 98 / 79 28 71.

**Etxe bat** alokatzen da, San Antonion. ☎ 75 21 39.

**Pisua konpartituko** nuke Matxiategin beste pertsona batekin ☎ 76 24 57.

**SALDU-EROSI**

**Berogailu japoniar** bat salgai. ☎ 76 50 12.

1.992-93 ikasturterako, egunero **Donostira** joan-etorria egiteko, autobusa bete nahi dugu. Interesatuta bazaude deitu 77 00 65era.

**Collle arrazako txakurkumak** salgai ☎ 76 31 35 / 15 04 41

**Mendiko** bizikletaren **XT.92** freno beltzak salgai. ☎ 76 52 31 (gaez).

**Bigarren** eskuko futbolin eta bilarrak salgai. ☎ 76 12 00 / 45 21 93.

**3 atedun Opel Corsa 1.300 GTa** salgai (SS-X). ☎ 76 05 92 (gaez).

**Matrimonio logela** bateko altzarlak salgai. ☎ 76 44 27 (gaez).

**Ingeles kurtso** bat kasetetan erosiko nuke. ☎ 76 54 26.

**XR 2 l kotxea** salgai. 2 urte, berri-berria. 55.000 Km. SS-AG. ☎ 76 55 80.

**Elektragailuak** (garbigailua, hozgailua...) erosiko nituzke ☎ 76 17 85.

**Gasteizera** egunero joateko **kotxe** bila gabiltza ☎ 76 31 55. (Aitor)

**Kitarra akustikoa** salgai (15.000). ☎ 76 11 89.

**Taberna** alokatuko nuke ☎ 76 53 73.

**Amstrad** ordenadorea salgai, kolorezko monitora, 3 pulgadako disketara, 30 joku. 35.000 pezeta. ☎ 76 25 12.

**LANA**

**Taberna** alokatuko nuke ☎ 76 53 73.

**Arratsaldetan** gaixoak eta edadetuak zaintzen lan egingo nuke. ☎ 76 46 90.

**Emakumezko** batek haurrak zalindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Mutil** batek kalitatezko ilustrazioak, erretratuak, irudiak etab. marraztuko lituzke ☎ 76 25 59.

**Etxeko** lanak egin eta umeak zalinduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

**Neska** bat behar da etxeko lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

**Edozein** motatako lanak makinaz edo ordenadorez pasatzen ditugu. ☎ 76 17 20 (Laura).

**Neska** batek etxeko lanak egin eta umeak zalinduko lituzke. ☎ 76 45 53.

**Hildakoak**

*Aste honetan ez da inor hil Bergaran.*

**Jaiotakoak**

*Unai Barrutiabengoa Castelo*  
irailaren 2an  
*Andoni Badiola Guridi*  
irailaren 6an

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

*Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara*

**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

**iRUDI**  
**Erlojudenda**  
**Bitxitegia**

San Pedro 11  
Tfnoa: 76 51 65



# JAKINA

BAINUAK • ZERAMIKA • SUKALDEAK



ZERAMIKA ETA SANITATE GAIAK



SUKALDEKO ALTZARIGINTZA

San Lorenzo Poligono Industrialia, Amillaga 10, behe. Tfnoa: 76 03 30 • Faxa; 76 02 91. BERGARA



## ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioa
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA